

**A**rabako Mendialdean herri asko daude, eta ezin hobeto gordetzen dute eskualde honen antzinako zapore tradizionala, mende askotan aritu baitira abeltzaintzan. Baina, zalantzarik gabe, Arabako Mendialdearen erakargarri nagusietako bat bere natura oparoa da, ia ukitu gabea, aberastasun ekologiko zabalean paseatu eta goatzera gonbidatzen zaituena.


35 kilometroko ibilbide honetatik pagadietan barrena galduko zara; edertasun handiko paisaiak gozatuko dituzu, Izkiko parke naturala eta Iturrietako Mendiak izanik erakusgarri nagusi; interes historiko eta etnografikoa duten hiribildu eta herrixkak ezagutuko dituzu, esate baterako, Antoñana, Maeztu, Oteo edo Done Bikendi Harana. Arabako eskualde honetako jendearen berotasunak ere txundituta utziko zaitu.




Gure ibilbidea Antoñana herrian hasten da, zehazki tren geltoki zaharrean dagoen interpretazio zentroan. Lehenengo kilometroek bat egiten dute iparralderantz doan Vasco-Navarroren ibilbidearekin. Jarraitu haren seinaleak. Ez duzu galtzerik.

## IBILBIDEA

0 km	Antoñana, trenbideko interpretazio zentroa. Bidea Maeztuko norabidean hasiko dugu. Errepidea gurutzatzeko, interpretazio zentroaren ondoan dagoen pasabidea erabiliko dugu.
4 km	 <b>Bidegurutzeta. Ez arretarik galdu!</b> Errepide zahar bat aurkituko duzu eta ezkerre bira egin beharko duzu. Errepide azpitik pasatzeko egokitutako bidea hartu eta, metro gutxitan, beste bidegurutze batean, eskuinera bira egin Vasco-Navarroren bidetik.
4,9 km	Atauri herrira iritsiko gara. Tunel bat zeharkatuko dugu, sartu ahala argiak pizten direna.
6,3 km	Errepide bat ikusiko duzu, baina berau gurutzatzeko, eskuinaldean aurkituko duzun pasabide handia hartu. Zuzen jarraituko dugu pasabidearen irteteko bidetik.
7,8 km	Maeztuko tren geltoki zaharra, egun udaletxea dena. Zuzen jarraituko dugu herriaren beheko aldetik.
8,1 km	Herriaren amaieran, bidea banatzen denean, ezkerretik jarraituko dugu, zementuzko bide batetik. Zuzen jarraitu eta errepidea pasabide batetik gurutzatuko dugu. Vasco-Navarroren ibilbidetik jarraituko dugu.

9,2 km	<p>Tunelera iritsi baino lehen, 50 metro ingurura, Vasco-Navarroren ibilbidea utzi eta ezkerrera Aletxa herrirantz igotzen den bidea hartuko dugu. Malda labur baina gogorraren ondoren, ezkerrera bira egin eta Aletxarantz abiatuko gara.</p> <p> <b>Adi! Aldapa handia.</b> Igoera hori saihestu nahi baduzu, Vasco-Navarroren ibilbidetik jarrai dezakezu eta 11,2 kilometroan elkartu ibilbidera.</p>
9,8 km	<p>Errepidea zuzen gurutzatu eta, metro gutxitara, ezkerrera doan bidezidorra hartuko dugu, PRko marka zuri eta horiak jarraituz.</p>
10,2 km	<p>Aletxa. Eskuinera bira egingo dugu, herriaren goiko aldera igotzeko.</p>
10,5 km	<p>Herriaren amaieran bidea banatu egiten da. Eskuinetik jaitsiko gara, PRko markak jarraituz.</p>



## SANTA TEODOSIA

ibilbide honetako tokirik garrantzitsuenetako bat Santa Teodosia ermita ederra da, izen bereko mendatearen gainaldean dagoena. Inguruan aisialdirako gune bat dago, zuhaitzi bikain batekin: **lizarrak**, **haritzak** eta **pagoak** nagusi, paseorako gonbita eginez. **Iraileko hirugarren igandean** hurbiltzen bazara, **erromeria** tradizional eta jendetsuaz gozatu ahalko duzu Haraneko herritarrekin.



11,2 km

Vasco-Navarroren bidea pasatuko dugu zubi zahar batetik. Zeharkatu bezain laster, eskuinera bira egingo dugu, eta, berehala, ezkerrera. San Toribio ermitarantz jaitsiko gara Vasco-Navarroren ibilbideko zementuzko pista batetik.



*San Toribio ermitan batzen ziren batzar nagusiak, eta aretoan bertan aukeratzeko ziren Laminoriako Erret Harana osatzen zuten udalerrietako alkateak.*

11,4 km

San Toribio. Errepidea hartuko dugu, ezkerrera, ermita gure ezker aldean utziz. Ondoren, Musituko norabidean jarraituko dugu.



**Adi! Kilometro bat egingo duzu errepidean.** Kontuz ibili.

12,4 km

Errepidea utzi eta eskuinean ikusiko duzun bidea hartuko dugu. Segi PRko markak.

14 km

Berriz ere errepidera iritsiko gara. Eskuinera joko dugu.

14,2 km

Musitu. Garbategia eta iturria gure ezker aldean utzi eta zuzen igotzen jarraituko dugu, bi etxalderen artean.

14,5 km

Bidea banatzen da. Eskuineko bidea hartuko dugu, Igoineko sakanean behe aldera jaisten dena.

16,4 km

Pinuditik hurbil bidezidor bat dago, eskuinera. Bertatik aurrera jarraituz gero, errota abandonatu bat bisitatu ahaliko dugu. Guk, hala ere, pista nagusitik zuzen jarraituko dugu.

16,7 km

Pista bidezidor bihurtzen doa. Puntu honetan, erreka gainera pasabidea gurutzatu eta berriz ere igoko gara bidezidor eder batetik, erkametz, pago eta pinu artean.





Zati honetan *sakan* gaineko ikuspegi pribilegiatuaz gozatu ahalko dugu, Iturrietako Mendialdean. On egin!

17,7 km

Puntu honetan beste bidezidor bat irtetzen da, eskuinera, euria garaian ur jauzi ikaragarria izaten den leku batera doana. Gure ibilbideak saihebidetuz hori bazter utzi eta zuzen igotzen jarraituko du.

17,9 km

Mendilerroaren goi lautadara iritsiko gara. PRko markak jarraituko ditugu eta Erroitegi herrirantz abiatuko gara, Arabako bigarren hiribildurik altuenera, hain zuzen ere.

18,2 km

A-4142 errepidera helduko gara; eskuinera bira egin eta Erroitegi iritsiko gara. Herria zeharkatu eta GR-282rekin (artzaintza naturbidea) batuko gara.

18,6 km



**Adi! A-3114 errepidera iritsiko gara.** Ezkerre bira egin eta metro batzuk egingo ditugu.

18,8 km

Errepidea utzi eta eskuinean ikusiko dugun legarrezko bidea hartuko dugu. Zuzen jarraituko dugu.



*Iturrietako Mendien* bihotzean zaude. Artzaintza eskualdea da; bere gailurretan monumentu megalitikoak eta ermitak daude, han-hemenka, eta ezkutuko altxoren kondairak gordetzen dira oraindik.

19,2 km

Bidea banatzen da. Eskuinera joko dugu.

19,3 km

Hesia gurutzatuko dugu.

19,6 km

Erreka baten ubidea zeharkatu eta zuzen jarraituko dugu, gorantz doan bidetik.

20,2 km

Beste hesi bat gurutzatu eta pagadian barrena sartuko gara.





## HARANA



Araban ondoen artatzen den eta, Azalantzarik gabe, natura harrigarriari esker txundituta utziko zaituen haranetako bat da. Lau herri hauek osatzen dute: **Done Bikendi Harana, Uribari Harana, Alda** eta **Kontrasta**. Herrixka hauek zapore tradizionala bere osotasunean mantentzen dute, erreferentzia historikoz betea.



<b>20,4 km</b>	Bidea banatu egiten da haritz handi baten ondoan. Ezkerretik jarraituko dugu.
<b>21 km</b>	Hesiaren ondoan amildegi polit baten ahoa ikus daiteke; inguru honetan maiz ikusten dira halakoak.
<b>21,1 km</b>	Landa batera eramango gaituen beste hesi bat gurutzatuko dugu. Zuzen jarraituko dugu, gorantz, artzaintza naturbideko markak jarraituz.
<b>21,4 km</b>	Santa Teodosia. Errepidea hartuko dugu, eskuinera, ermita gure eskuinaldean utziz. Done Bikendi Haranerantz jaisten hasiko gara, GR-282a utzita.
<b>21,7 km</b>	Puntu honetan ezker aldean daukagun bidea hartuko dugu. Zailtasun tekniko txikiak saihestu nahi badituzu, errepidetik Done Bikendi Haranera irarri dezakezu.
<b>22,7 km</b>	Bidegurutzeta. Eskuinera joko dugu pagaditik.
<b>23,3 km</b>	Hesia gurutzatuko dugu.
<b>23,8 km</b>	Beste hesi bat gurutzatuko dugu. Landabide batetik goaz orain.
<b>24,8 km</b>	Bidegurutzeta. Eskuinera jarraituko dugu.
<b>26 km</b>	Errepidea hartuko dugu berriz, Done Bikendirantz, gure ezkerrean. Berriz egingo dugu bat GR-282rekin, gure ibilbidearen amaieraraino.
<b>26,5 km</b>	Done Bikendi Haranera iritsiko gara. Kaletik elizarantz jaitsiko gara. A-2128 errepidea gurutzatuko dugu. Zuzen jarraitu eta metro batzuk aurrerago eskuinera joko dugu, eliza inguratuz. GR-282 ibilbideak gure bidea jarraitzen lagunduko digu.
<b>26,7 km</b>	Herriaren amaiera. Eskuinera bira egingo dugu bide batetik.
<b>26,8 km</b>	Hesia gurutzatuko dugu.
<b>27,4 km</b>	Bi hesi gurutzatu eta bigarrenetan eskuinera bira egingo dugu.



28,9 km	Hesia gurutzatu eta eskuinera bira egingo dugu, errepide zaharreko asfaltotik.
29,1 km	Errepidea gurutzatu eta, langa bat pasatu ondoren, ezkerrera jo eta GRko markak jarraituko ditugu. Berehala jaitsiera handi bat aurkituko dugu, eta gero, inguru oso polit batetik igoko gara.
30,1 km	Bidegurutzea. Ezkerrera joko dugu.
30,3 km	Bidea banatzen da. Eskuinetik jarraituko dugu, Oteora igotzeko.
30,4 km	Oteo. Errepidera iritsi eta eskuinera bira egingo dugu; pilotalekua pasatu eta uraskara iritsiko gara, zuzen.




*Oteo hiribildua sortu zen Harana eta Kanpezu artean zebiltzan pertsona eta salgaiak kontrolatzeko.*

30,5 km	Iturrian ezkerrera joko dugu eta Rosaria erreka gurutzatu arte jaitsiko gara. Puntu honetan bideak gora egiten du eta, lehendik ere nahikoa ibili zarenez, igoera hau gogorra gerta dakizuke.
31,8 km	Zuzen jarraituko dugu, eskuinean dagoen saihesbidea bazter utziz.
34,2 km	Jaitsiera luze baten ostean, Antoñana hiribildua ikusten hasiko zara, aldapa txiki bat baino lehen. Eskuinera bira egin eta jaisten jarraituko dugu.
34,6 km	Antoñana. Ezkerreko kalea hartuko dugu, herriaren goiko aldetik.
35,1 km	Iturrira iristean, behera egingo dugu, haurrentzako jolas-toki bat ezkerrean utziz. Behean gaudenean, eskuinera bira egingo dugu.
35,5 km	Errepidera iritsiko gara. Beste aldean interpretazio zentroa dago. Ibilbidearen amaiera.  <b>Kontuan hartu:</b> Errepidetik pasatu nahi ez baduzu, GRko markak jarrai ditzakezu eta errepidearen azpitik doan bidera eramango zaituzte, ibaiaren ondotik.



## IBILBIDEAREN PROFILA



## LEKU INTERESGARRIAK



## NATURA ETA PAISAIA

- |                      |                              |
|----------------------|------------------------------|
| 1. Istorako sakana   | 7. Iturrietako mendiak       |
| 2. Igoingo sakana    | 8. Entzia mendilerroa        |
| 3. Antoñanako hagina | 9. Izkiko parke naturala     |
| 4. Antoñanako ezkia  | 10. Lokiz mendilerroa        |
| 5. Ega ibaia         | 11. Santa Teodosiako lizarra |
| 6. Soila mendia      |                              |



## KULTURA

1. Antoñana: Multzoko historikoa
  2. Korres: Hirigune historikoa
  3. Korres: Mairuen gaztelua
  4. Maeztu: Samaniego jauregia
  5. Santikurutze Kanpezu: Ibernaloko santutegia
  6. Done Bikendi Harana: Santa Teodosia ermita
- Inguruan:
- Entzia mendilerroa: Mendiluzeko harrespila



## AISIALDIRAKO GUNEAK

1. Antoñana: bizikletak alokatzeko zerbitzua
2. Antoñana: hipika zentroa
3. Santikurutze Kanpezu: Fresnedoko parkea
4. Maeztu: Zumaldeko parkea
5. Done Bikendi Harana: Santa Teodosiako parkea

## MAPA



## FITXA TEKNIKOA

<b>Nola heldu:</b>	Antoñanatik, Vasco-Navarroren ibilbide berdeko interpretazio zentroa
<b>Distantzia, guztira:</b>	35,5 kilometro
<b>Iraupena, gutxi gorabehera:</b>	3,5 ordu
<b>Zailtasuna:</b>	Handia
<b>Gomendatutako bizikleta:</b>	BTTa
<b>Desnibel metatua:</b>	860 metro

## EZ GERATU IKUSI GABE...

### ANTOÑANA

Hiribildu hau, gure ibilbidearen abialekua dena, Nafarroako Antso Jakitunak eratu zuen hiribildu gotortu gisa. Arabako **herri harresitu** honek oraindik ere mantentzen ditu etxebizitzak hormetan eta maitasun handiz zaintzen ditu eraikuntza eta kaleak, Erdi Aroko zaporeari eutsiz. Geltoki zaharrean **ibilbide berdeei** buruzko informazio interesgarria aurkitu ahalko dugu, duela urte gutxi inauguratu zen interpretazio zentroan..



### KONTRASTA: ERDI AROKO ONDAREA

Kontrasta herriak (irudian) ekialdetik ixten du harana. Muino batean dago, 800 metrotik gorako altitudetan; Nafarroako Erresumaren mugako lurretan egonik, defentsarako leku estrategikoa izan zen Erdi Aroan. Are gehiago, hiribildu txiki hau, bere garaian harresitua egon zena, **Nafarroa, Gaztela, Araba eta Kantauri itsasoaren arteko bidegurutze** izan zen. Jasokundeko Andra Mariaren eliza sendoak eta Elizmendiko ermitak (kanpoaldean) txundituta utziko zaituzte, eta plazer hutsa izango da oraindik Erdi Aroko egiturari eusten dioten kaleetan barrena ibiltzea. Bitxia da elizako plazan dagoen iturria.